



MAPAKETA



Emakume
Nagusi
Migratuak




Bilbon




Ikusezin bihurtutako
errealitate
batean arreta jarriz



LA POSADA DE
LOS ABRAZOS
BESARKATUZ



AURKIBIDE



Egilea:
La Posada de los Abrazos– Besarkatuz
Finantzatzailea:
Diputación Foral de Bizkaia – Bizkaiko Foru Aldundia

Itzultzailea:
Paula Gutiérrez Álvarez
Maketatua eta irudigilea:
Emi Csiki (Esmee Mitzak)

Finantzatzailea:



BERDINTASUNA + IGUALDAD

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK SUSTATUTAKO EMAKUMEEN
ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO EKIMENAK
INICIATIVAS PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES
APOYADAS POR LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA

Egilea:



4

AURKEZPENA

ZAILTASUNAK BIDEAN

6

EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO

8

BIZKAIA

10

BILBO

12

JATORRIA

14

BANAKETA BILBOKO
DISTRITOEEN ARABERA

16

ALDAKETAK URTEETAN

18

PRESENTZIA GEHIEN
DUTEN AUZOAK

20



LA POSADA DE
LOS ABRAZOS
BESARKATUZ

La Posada de los Abrazos esku-hartze sozial erakunde feminista aktiboa da Bilbon 2004tik.

Azken urteetan, kalteberatasun-egoera dauden adineko emakume migratuen kopurua gero eta handiagoa dela ikusi dugu.

Errealitate hori ikusarazteak eta ulertzeak duen garrantziaz jabetuta, Bizkaiko Foru Aldundiarekin (BFA) bat egin dugu kolektibo horri eragiten dioten berariazkotasunetan sakontzeko.

Antolatutako ekimenen barruan, atzerriko jatorria duten 55 urtetik gorako Emakume Migratuen lehen mapaketa egin dugu Bilbon.


Gure helburua hirugarren sektoreko zerbitzuen hausnarketa eta egokitza pen a sustatuko duen hazia landatzea da. Emakume horien behar espezifiko ei erantzun egokia emango zaiela ziurtatu nahi dugu.

Azterketa hori Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE)

emakume migratuen egoerari buruzko 2023. Urteko azken txostenetan oinarritzen da, **Bilboko** hirian arreta berezia jarritz.

Prozesuan zehar, hainbat eragozpen aurkitu ditugu Bilbon bizi diren adineko emakumeei buruzko datu kuantitatiboak lortzerako orduan.

Zailtasun nagusietako bat 2023ko datuak argitaratzeko denbora izan da. Funtsezko aldagaien artean informazio gurutaturik ez dagoela ere ikusi dugu, hala nola adina eta egoera sozioekonomikoa edo soziorabiala. Horrek guztiak, emakume horien errealitate sakonagoa ulertzeak eragozten du. Espero genuen beste traba garrantzitsu bat **datu partzialena** da. Erroldan erregistratuta dauden pertsonen buruzko informazioa baino ez dugu, eta horrek beste asko itzalpean uzten ditu, batez ere erroldatuta ez daudenak. Joera horrek, eskuragarri dauden datuek ez dutela hirian migratutako biztanle nagusien dibertsitate osoa islatzen esan nahi du. Azkenik, nahiz eta hasiera batean 55 urtetik gorako emakume direnak emakume nagusi migratu gisa hartu baditugu ere, adinarekin lotutako zailtasun-zeinuak 45 urtetik aurrera agertzen hasten direla ikusi dugu. Hori dela eta, eta dauden datu kuantitatibo askok 45 urteak adin-tarte berri baten hasieratzat hartzen dituztelako, gure azterketarako tarte hori kontuan hartzea erabaki dugu. Beraz, une batzuetan 55 urtetik gorako emakumeei buruzko datuak aurkitu ahal izango dituzue, eta beste batzuetan, 45 urtetik gorako emakumeei buruzkoak.



Agiri honetan datuak inbutu formatuan islatzen dira, lehenik Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, gero Bizkaiko Lurralde Historikoari dagokionez eta, azkenik, Bilboko udalerriari dagokionez.

Eskuorri hau aztertzeraz gonbidatzen zaitugu, informatzea ez ezik, gure erkidegoan emakume horien inklusioa eta ongizatea sustatuko duten ekintzak inspiratzea ere bilatzen baitu.


2023ko urtarrilaren 1ean, Euskal Autonomia Erkidegoak **2.216.302 biztanle** zituen, eta horietatik **274.142 inguru atzerrian jaio­takoak dira**, hau da, guztizkoaren **% 12,4** (Ikuspegi, 2023).

Atzerritar jatorriko herrialde nagusia **Latinoamerika** da oraindik, guztizkoaren **% 53,9**. **Kolonbia (% 12,6)**, **Maroko (% 11,3)** eta **Nikaragua (% 6,1)** dira beste herrialde aipagarrienak. **Garrantzitsua da azpimarratzea Kolonbiak izan duela hazkunderik handiena** (Ikuspegi, 2023).

Generoaren araberako banaketari dagokionez, nabarmentzekoa da 2023an **emakumeak atzerritar jatorriko biztanleriaren % 52 zirela**. Hala ere, grafikoan ikus daitekeen bezala, garrantzitsua da jatorriaren araberako aldeak azpimarratzea. Asian eta Afrikan gizonen migrazioa da nagusi, beste aldetik, **Latinoamerikatik etorritako pertsonen % 60,2a emakumeak dira**.



Bizkaiak 1.153.282 biztanle ditu guztira, eta horietatik **137.095 atzerri-
tar jatorrikoak dira. Guztizko kopuruan, Euskal Autonomia Erki-
degoko lurralde historiko horretan erregistratu dira migratzaile
gehien.** Hala ere, ehunekoak aztertuz gero, Bizkaia hirugarren postuan dago,
atzerritar jatorriko pertsonak biztanleria osoaren % 11,9 baino ez baitira.
Bizkaian, atzerritar jatorriko biztanleen % 52,8 emakumeak dira, eta zifra hori bat
dator beste lurralde historiko batzuetan eta Euskal Autonomia Erkidego osoan
ikusitako proportzioekin (Ikuspegi, 2023).



Biztanleria osoa, bertokoa eta atzerritar jatorrikoa EAEn eta lurralde historikoaren arabera (guztizkoak eta %), 2023

	GUZTIZKO BIZTANLERIA		BERTOKO BIZTANLERIA		
Araba	336.308		287.266		
Bizkaia	1.153.282		1.016.187		
Gipuzkoa	726.712		638.707		
EAE	2.216.302		1.942.160		
	ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLERIA				
	Guztira	% guztiz.biztan.	Gizonezkoak	Emakumezkoak	% Emakumezkoak
Araba	49.042	14,6	23.914	25.128	
Bizkaia	137.095	11,9	64.747	72.348	
Gipuzkoa	88.005	12,1	41.924	46.081	
EAE	274.1421	2,4	130.585	143.557	


2023ko eroldaren arabera, Bilbon atzerritar jatorriko 56.288 biztanle zeuden, eta horietatik 29.329 emakumeak ziren.

Datu horrek, komunitate migratzailean emakumeen presentzia esanguratsua azpimarratzeaz gain, aurrez aurre dituzten zapalkuntza-geruza ugariei buruz hausnartzera gonbidatzen gaitu.

2023an, 45 urte edo gehiago zituzten 10.160 emakume atzerritar edo atzerrian jaiotakoak zeuden, hau da, Bilbon bizi ziren emakume atzerritar guztien % 34,64. Horietatik, 4.802k 55 urte edo gehiago zituzten.

Emakume horietako askok Bilbon bizi izan ziren hainbat urtez, eta, denboraren poderioz, batez besteko adina handituz joan egin da.

45 urteko eta gehiagoko emakume atzerritarrek eta/edo atzerrian jaiotakoak




Iturria: guk geuk egina, Udalak emandako datuetan oinarrituta. Ikuspegi, 2023

Adin-datuak aztertzean ikusten da 45 urteko eta gehiagoko emakume gehienak 45 eta 59 urte bitartekoak zirela. Horrek datozen urteetan emakume migratzaile zaharrenen populazioak gora egiten jarraituko duela iradokitzen du.

Azken urteetan 45 urte eta gehiagoko emakume kopuruaren gorakada adinaren banaketarekin alderatzen badugu, etorkizunean 60 urtetik gorako emakume gehiago egotea espero dezakegu, orain 45 eta 59 urte tartean dauden emakume askok zahartzen jarraituko baitira.

Horrek, nola aldatuko den Bilboko adineko emakume migratzaileen populazioa datozen urteetan erakusten digu.


45 urteko eta gehiagoko emakume atzerritarrek eta/edo atzerrian jaiotakoak (2023)



Iturria: guk geuk egina, Ikuspegik hornitutako datuekin, 2023

Bilbon bizi diren 45 urteko eta gehiagoko emakume atzerritar gehienak Latinoamerikatik datoz. Izan ere, horien % 69,3k Latinoamerikako herrialdeetan dute jatorria edo herrialde horietako bateko nazionalitatea dute. **Datu horrek lotura estua du zainketa-lanarekin, sektorean lan egiten duten langile gehienak Latinoamerikako emakumeak baitira.**

45 urteko eta gehiagoko emakume atzerritarrek eta/edo atzerrian jaioetakoak (2023)




Iturria: guk geuk egina, Ikuspegik hornitutako datuekin, 2023



Latinoamerika

Hauek dira hirian bizi diren Latinoamerikako emakumeen taldean ordezkartza handiena duten bost erkidegoak hain zuzen ere: **Kolonia (% 20,3), Bolivia (% 10,1), Venezuela (% 5,8), Nikaragua (% 5,1) eta Paraguai (% 4,6%).**



Iturria: guk geuk egina, Ikuspegik hornitutako datuekin, 2023


Bilbo 8 barrutitan banatuta dago, eta guztiek ez dute banaketa sozioekonomiko bera. Oro har, biztanle bakoitzeko errenta txikiena duten auzoetan dago pertsona horien kopuru handiena. Eustatek Bilborako per capita errentari buruz egindako inkestaren datu berrien arabera (2021), hiriko familiaren urteko batez besteko diru-sarrera 47.021 €-koa da.

Hala ere, zenbait auzotan diru-sarrera askoz ere txikiagoak daude. Horien artean Iturrigorri, Otxarkoaga, Uretamendi, Arabella, Altamira, **Bilbo Zaharra, Zabala eta San Frantzisko** daude.


Azken hirurak Ibaiondo barrutian daude, Bilboko biztanleria migratzailearen bigarren ehuneko handienez, % 20,1ekin.

Eredu horrek erakusten duenez, alderdi ekonomikoek, diru-sarrerek eta baliabideak eskuratzeak eragina izan dezakete beste herrialde batzuetatik datozen pertsonen kokalekuan.

Atzeritar jatorriko biztanleen ehunekoa, Bilboko barrutien arabera. 2011 eta 2023




2011





2023

Nabarmentzekoa da 2019tik Errekalde auzoak gora egin duela migratzaileen ehunekoan, eta atzerriko biztanleriaren proportzio handiena duen auzoa dela. Aldaketa hori lbaiondon ezarritako hirigintza-politikekin lotuta dagoela uste dugu, eskualdeko alokairuen prezioen igoeraren sekuentzia gisa. **Litekeena da, gainera, barruti horietako migratzaileen proportzioa are handiagoa izatea, pertsona batzuek ez baitute erroldarik.**



2011



Bilbon, oro har, atzeritar jatorriko biztanleen % 52,1 emakumeak dira; aldiz, auzoka, atzerrian jatorria duten emakumeen eta gizonen ehunekoari erreparatuz gero, ikus dezakegu **Abando** eta **Deustuko barrutietan emakumeen proportzioa handiagoa dela (% 57,5 eta % 56,6, hurrenez hurren.**


Bestalde, Abando atzerriko biztanleen ehuneko txikiena duen barrutia da (% 10,8), eta hiriko familia-errentarik handiena duten auzoak ditu (Abando eta Indautxu izan ere). Abando auzoaren kasuan, urteko familia-errenta 85.945 eurokoa da, eta Deustu auzoaren kasuan ere hiriko batez bestekoa gainditzen du, 52.439 eurokoa izanda. (2023ko urteari sozioekonomikoa. Bilbao Behatokia).

Azterketa intersekzionaletik eta hipotesi gisa, uste dugu, barruti horietan emakume migra-tuen kontzentrazio bat dagoelako izan litekeela, emakume hauek etxeko langile gisa lan egiten dutelako eta hainbat lan egiten duten etxeetan erroldatuta egongo liratekeenak.


EMAKUMEAK ■

GIZONEZKOAK ■

Atzeritar jatorriko biztanleen ehunekoa, Bilboko barrutien arabera, 2023



Atzerriko nazionalitatea duten eta/edo atzerrian jaioetako 45 urteko eta gehiagoko emakumeak, bizilekuaren barrutiaren arabera (2023)




Datu horiek adinaren aldagaiarekin gurutzatzean, joera are nabarmenagoa ikusten da biztanleria migratzaileari dagokionez.


Bilbon bizi diren 45 urteko eta gehiagoko emakume migratzaile guztien % 20 baino gehiago Ibaiondo barrutian errolatuta daude, eta ia % 18 Errekalden. Datu horrek 45 urteko eta gehiagoko emakume migratzaileen proportzio handi bat (% 38) bi auzo horietan bizi dela agerian uzten du. Funtsezko elementuetako bat etxebizitzek hirira iristen diren unean

duten prezioa izan daiteke. Barruti horiek aukera erakargarriagoa izan zitezkeen migratzaile askorentzat finkapenarenaren hasieran, Bilboko beste eremu batzuekin alderatuta bizi-kostu eskuragarriagoa duten eremuak baitira.


Horretaz gain, pertsona horiek auzo horietan sare sozial edo komunitario bat ezarri ondoren, litekeena da babes- eta familiartasun-sare horretatik gertu bizitzen jarraitzeko interesak eragina izan izana bertan geratzeko erabakian. Gizarte-babes sare bat sortzea funtsezko zeregina da familia- eta komunitate-harremanetan, beraz, faktore erabakigarria izan daiteke pertsona askorentzat, batez ere emakume migratzaileentzat, seguruago eta lagunduago sentitzen baitira ingurune hurbilean.

Datozen urteetan, 45 urtetik gorako emakume migratuen kopurua nabarmen handituko dela aurreikusten da, eta arreta eta baliabide espezifikoak beharko dira haien premia zehatzei aurre egiteko. Emakume horiek bi barrutitan biltzen dira, Ibaiondon eta Errekalden, eta funtsezkoa da politika publikoak errealitate berri horretara egokitzea.





Mapaketan biltzen den informazio guztia **IKUSPEGIK**
(Immigrazioaren Euskal Behatokia) emandako datuei esker lortu da, eta
EUSTATen, Euskal Estatistika Erakundearen eta Bilboko Udalaren
orrietan agertzen da.



Finantzatzailea:



BERDINTASUNA + IGUALDAD

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK SUSTATUTAKO EMAKUMEEN
ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO EKIMENAK
INICIATIVAS PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES
APOYADAS POR LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA



Egilea:



LA POSADA DE
LOS ABRAZOS
BESARKATUZ